



**Tren geltokia berritzeko
proiektua berridazketa
prozesuan da**

**Usurbilgo kutsadura
fokuak aztergai**

**Banda zabala landa eremu
osora hedatzeko ahaleginean
ari da Udala**



Aginagako Jai Batzordea:

**“Orain egiten ari garena ere bada
herria saretzeko modu bat”**

%100 bertako sagarra

**OSTIRAL, LARUNBAT
ETA IGANDETAN IREKITA
(ERRESERBAREKIN)
osasun neurri guztiekin**

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*

**AIALDE
BERRI**

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

URDAIRA

Sagardotegia

**OSTIRAL, LARUNBAT ETA
IGANDETAN irekita**

osasun neurri guztiekin
ERRESERBA EZAZU!

Aginaga 943 37 26 91

Freskagarri Naturala!

Sagardo berriak dasta
ditzakezue segurtasunez
gure sagardotegian!

Betiko Sagardoa

SAIZAR

SAIZAR

SAIZAR

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassalzar.com

**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

**ATE IREKIAK
Martxoak
10**

**HARTU
HITZORDUA!**

Erdi Maila: 17:00
Goi Maila: 18:00

☎ **943 364600**

✉ adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus

Albisteak iruditan

NOAUA!ko bazkide izatearen abantailak



Duela aste batzuk iragarri genuen moduan, Errigorako bi saski zozkatu ditugu NOAUA!ko bazkideen artean. Honakoan, Josu Furundarena Padrones eta Joseba Arrizabalaga Larrañagari egokitu zaie saski bana. Hurrengo zozketa otsailaren 26an egingo dugu. Irabazleak Zuberoako ikastolen aldeko saski bat jasoko du opari gisa.

Laburrean

Usurbil eremu gorritik atera da

Intzidentzia tasa 475'59ra jaitsi zen astelehenean eta datu honi esker Usurbil eremu gorritik laranja igaro da. Eskola Kirola eta Zirimara martxan jarriko dira berriro, astebetez etenda egon eta gero.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. "PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik", eskatzen du Udalak.

"Biohondakinen kudeaketa", Hobekiren jardunaldia

"Biohondakinen kudeaketa: nola gaude eta zer egin dezakegu?" jardunaldia antolatuko du Usurbilgo Udala kide duen Hobeki Elkartek otsailaren 17rako Oñatin. Streaming bidez jarraitzeko aukera izango da. Izen-ematea hobekielkartea.eus atarian.

noaUA

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaidea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaueus /// www.noaueus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaueus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaueus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Luis Aranalde

Naizen

Diren bezala onartuak izateko borrokan ari diren neska eta mutil bihurtzeko asmoz, Naizen/ yo sé quién soy abestia aurkeztu zuten urtarilaren 24an Bilboko BBK aretoan. Aniztasunari himno bat da. Ekitaldia antolatu zuen Naizen haur eta gazte transexualen familien elkar-teak. Sustatzaileen esanetan, “gure haurren errealitatea lau haizeetara zabaltzeko” balioko du kantak.

Bi urte pasa dira Naizen elkartea sortu zenetik. Chrysallys Euskal Herriari jarraipena ematen dio talde honek. Gaur plazaratu duten ikus-entzunezko egitasmo berriak helburu berdina du: transexualitate egoeran kide bat duten familiek beren etxeetan bizi duten errealitatea ikustaraztea.

Naizenek Hego Euskal Herriko 200 familia inguru ditu gaur egun, eta elkarri laguntzeko sare bat osatzen dute. Gainera, beraien seme-alaben errealitatea ikustaraztea eta neska zein mutil horien eskubideak eta aldarrikapenak zabaltzea da elkartearen zeregina.

Naizen/Yo sé quién soy abestia Kai Etxaniz artista nafarrak konposatu du eta



“Naizenek Hego Euskal Herriko 200 familia inguru ditu gaur egun, eta elkarri laguntzeko sare bat osatzen dute”.

LUIS ARANALDE

“Beraien seme-alaben errealitatea ikustaraztea eta neska zein mutil horien eskubideak eta aldarrikapenak zabaltzea da elkartearen zeregina”

Ekaitz Goikoetxeak euskaratu. “Nik uste dut abestia hunkigarria dela eta bihotzean atxi-murdura egiten duela. Zabal dezagun gure mezua abestiarren bitartez”, zioen ekitaldian parte hartu zuen Bea Sever Nazioarteko kideak. Orain-txe jakin dudanez, Gaur bertan(2021-II-12) eraso transfobo bortitz bat izan da Iruñean 11 urteko mutiko baten kontra.

Lege berriaren zirriborroak transexualak halakotzat hartuko direla bermatzen du, informe mediko bat egiaztatu gabe eta tratamendurik jaso

gabe. Lege berri hau onartzen bada, izen eta sexu aldaketa hau egin ahal izango dute adin txikikoe (16 eta 18 urte bitartekoak) beren gurasoen baime-nik gabe. Aldiz, beharrezkoa izango da “onespen informatiboa” deritzana 12- 16 urtekoentzat. Gurasoen baimen gisa da agiri hori.

Hori aurrerapauso oso gar-rantzitsua izan dela esan dute Naizenekoe. Baina lege hori osatu egin behar dela diote, hain zuzen, osasun arloko protokoloak aldatu eta hezkuntza zen-troetan formazio integrala ematea ezinbestekoa da. Gaur egun, transexualitateari buruz ez da ikasten inongo karreran eta ez dago aurreikusia inongo materialetan. Hori guztia bermatu nahi dute elkarteko kideek.

Eliza hierarkia beste behin ere berrehun bat urteko atzerapenarekin dabil gai ho-

nen gainean. Luis Argüello, Espainiako Gotzainen idazkari nagusia legearen kontra agertu da. Bestetik, Muller Kardinalak esan du: “Jainkoaren hitzak denbora guztietarako balio du, lege honek ez du giza antropologia errespetatzen”, eta oroitarazten du harreman sexualak ezkontza barruan bakarrik eduki daitezkeela. Eskerrak Frantzisko Aita Santuak beste irudi bat ematen duen eta enpatikoa den transexualekin. Gogora Diego Neria transexualaren kasa: Aita Santuak deitu zion eta Erromara joan zedin bere andregaiarekin eskatu zion. Ordubeteko elkarriketaren ondoren, bien erdian agertu zen argazki dotore batean. Irudi hura mundu osoan ikusi zen. Ikustaldiaren ondoren esan zuen Diegok: “bakea egin dut munduarekin eta nire fedearekin. Esker mila, Bergoglio lagun”. Hori bai dela ebanjelioa.

Naizen kantaren bertso batzuekin amaitu nahi dut gogoetatxo hau. Honela dio abestiak: “Eskuari esku, / hel zaidazu estu/, bideak, nireak, libreak/, mugarik ez du. Haizearen pare,/ askatasunaren sare,/ begiradetan islatu nahi zen/zein ederra naizen”.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Ontzi arinak eta papera biltzeko poltsak banatuko ditu Udalak

Martxoaren 1etik aurrera ontzi arinak eta papera biltzeko poltsak banatuko ditu Udalak. Bi horiek ziren zintzilikailuetan uzteko edukiontzi propioa falta zuten bakarrak. “Era honetan atez ateko bilketa hobetzea lortu nahi da”, adierazi dute udal iturriek.

Covid-19ak dena zaildu duenez, poltsa hauen banaketa ezohikoa izango da. Otsailaren 22tik aurrera eskatu ahal izango dira: Atez Ateko bulegora deituz, whatsapp mezu bidez edo e-posta bat idatziz. Eta banatu, martxoaren 1etik aurrera banatuko dira poltsak. Urdina paperarentzat, horia ontzi arinentzat.



Poltsak bi helduleku ditu. Lehenbizi helduleku motza sartu behar da zintzilikailuan eta ondoren luzea. “Hala, poltsa zuzen eta ondo lotuta gelditzen da, bilketarako egoki eta bizilagunen espazioa errespetatuz”, udal iturriek esanda.

“Hondakin guztiak zintzilik, eta ez lurrean”

Joxe Mari Iribar ingurumen zinegotziaren esanetan, “denbora luzean hainbat buruhauste eman dizkigun kontu bat gaintzeko balio ahal izango dute poltsa hauek: hondakin guztiak zintzilik jartzea nork bere zintzilikailuan, eta ez lurrean. Lurrean utzita, euria edo haizea egiten duen egunetan hondakinak sakabanatu egiten

BAT URDINA, BESTEA HORIA

Otsailaren 22tik aurrera eskatu ahal izango dira: Atez Ateko bulegora deituz, whatsapp mezu bidez edo email bat idatziz

dira, eta bilketa eraginkorra izatea zailtzen du”.

Ibon Goikoetxea ingurumen teknikariak aditzera eman

duenez, poltsen heldulekuak desberdinak dira: “bata luzea, eta bestea motza. Lehenengo, helduleku motza sartu behar da zintzilikailuan, eta, ondoren, luzea: hala, poltsa zuzen eta ondo lotuta gelditzen da, bilketarako egoki eta bizilagunen espazioa errespetatuz”. Era honetan, “aldameneko edo inguruko zintzilikailuetako bizilagunei traba egitea saihestu nahi da”. Ingurumen teknika-

riaren esanetan, “poltsa hauek propio diseinatu dituzte trabarik gabe jartzeko”. Usurbil 0.0-ren irudia eta identifikazio txartelak kanpoko aldean gelditu behar dute.

Poltsak berrerabilgarriak dira
Poltsek 34 litroko edukiera dute (ohiko zabor poltsak 30 litrokoak izaten dira) eta berrerabilgarriak dira: etxean garbi daitzke eskuz zein garbigailuan.

Poltsak Atez Ateko bulegoan eskatu behar dira

Poltsak doan banatuko dira baina interesa duenak eskatu egin beharko du.

Telefonoz, whatsapp bidez edo email bat idatziz

Otsailaren 22tik aurrera eska daitezke poltsak.

- 900776776 telefonora deituz.
- Whatsapp mezu bat bidaliz 606 501 024 zenbakira.

■ Atezate@usurbil.eus helbidera idatzita.

Martxoaren 1ean hasiko da banaketa

Martxoaren 1ean hasiko dira banaketa egiten. “Nork bere zintzilikailuan aurkituko ditu poltsak, bere identifikazio txartel eta guzti”, Ibon Goikoetxeak azaldu duenez.

Astean behin egingo dute banaketa, astelehenetan, aurreko aste osoan jasotako eskaerei erantzunez.

Etxebizitza bakoitzeko poltsa bana

Etxebizitza bakoitzari ontzi arinak eta papera zein kartoia biltzeko poltsa bana emango zaio. Ez gehiago.



Poltsak identifikazio txartela izango dute.

Usurbilgo kutsadura-fokuak aztergai

Usurbilgo kutsadura-fokuak hizpide izan zituen Anerreka Ingurumen Elkarreka berriki Potxoenean, Larreko Mahaia ingurumen larrialdia salatze-ko deitutako “Aldaketaldia” zikloaren testuinguruan egin zuten Felix Olaetxearen hitzaldian. Foku hauekiko kontrol falta nabaria dagoela ohartarazi zuten. Kutsadura-foku bat baino gehiago ditu udalerririk eta “kontrola ez dago, deskontrola” baizik, solasaldian zehar aipatu zuten.

Etxebizitzak

Negu giro betean gauden honetan, nola berotzen dugu bizilekua? Eztabaidarako gai gisa planteatu zuten, biomasa bidezko berokuntza energia berriztagarria jasangarria ote den. Errekuntzak eragindako kea filtrorik gabe tximiniatik aireratzeko delat ohartarazi zuten. “Biomasa instalakuntza askorekin, handitzen da kutsadura”.

Etxean sortzen ditugun hondakin urak ere ahotan hartu zituzten. Egiten duten bidez ohartarazi zuen Anerrekaren solasaldian. Dakizuen, Loiolako araztegi garraiatzen dira Usurbilgo ur zikinok kolektore bidez, bertan itsasoratu aurretik tratatuak izan daitezke. Jarduera honen kostua “kostu energetiko handia” nabarmendu zuten, ur zikinak egin behar duten bidea edota araztegiak egin behar izaten duen hondakin bereizketa lana dela eta, bota beharko ez litzatekeen baina oraindik orain komune-



“Aldaketaldia” zikloaren baitan, Felix Olaetxeak hitzaldia eskaini zuen Potxoenean. Herri honetan kutsadura-foku bat baino gehiago dagoela adierazi zuen.

N-634 ERREPIDEAREN ZARATA

“Ehunka pertsonak legez araututakoa baino zarata gehiago jasaten dute”, Anerrekaren esanetan

ko zulotik isurtzen den organikoagatik esaterako.

Inguruotako ur zikinaren zati batek kolektore sare horretatik kanpo segitzen du eta erriora isurtzen dira. Aginaga ingurukoak hain zuzen. Bada egitasmo bat aurreikusia Anerrekaren gogorarazi zuten, “kolektorera batzeko proiektua”. Hitzaldian aipatzen zenez ordea egon liteke alternatibarik; ohiko proiektu zentralizatu eta handien orde, tokian tokiko azpiegitura txikiagoen aldeko apustua egitea; “ur zikinak

bertan tratatzea”.

N-634 errepidea

Udalerriko lurretatik igarotzen da A8 autopista, baina benetan herritarren bizimoduan eragin nabarmenena duen N634 errepidea ere kutsadura-fokuen artean kokatu zuten Anerrekaren hitzaldian, “inpaktu ekologikoaz gain, inpaktu sozial handia” baitu. Batetik hor daude, 2018ko martxoan jendaurrean aurkeztu zen “Puntu beltzik ez!” herri plataformak errepidean seinaturaluriko puntu arriskutsuak; Troian edota Aginagan.

Kontuan izatekoa da ere, egunero errepidetik eta ondorioz, udalerririk erditik igarotzen den ibilgailu kopurua. Eusko Jaurlaritzaren 2017-28 urte arteko EAEko errepideen plan

orokorraren arabera, 15.000 dira, “horrek suposatuko lukeen emisio eta zaratarekin”. Behar baino zaratatsuagoa da errepidea Anerrekaren antolatutako hitzaldian ohartarazi zuten. “Ehunka pertsonak legez araututakoa baino zarata gehiago jasaten dute”, eragina nabarmenagoa da gauetan. “Zenbait etxe eta jenderengan egunero gainditzen dira balore legalak”.

Eta horren aurrean zer egin? Argi denez, ahal den neurrien “ibilgailuen erabilera eta abiadura murriztea”. Erabiltzaile gehienak herrikoak edota udalerririk honetara lanera datozenak direla jakinda, errepide honekiko dagoen behararen azterketa bat egitea komenigarria izan zitekeela iradoki zuten.

“Behar besteko kontrolik ez da”

Gainerakoan erraustegiari lotutako behar besteko kontrolik ez dagoela ondorioztatu daitezke hitzaldian aipatu zutenaren arabera. Udarregi

Ikastola ondoan bada erraustegiaren harira aire kalitatea neurtzeko kabina bat, “parametro batzuk neurtzeko oso erabilgarria”. Baina handik

gertu 2018an Ucinen izandako sutea “ez zuen nabarmendu”.

Udarregi Ikastolako teilatuan Biodonostiak jarria da-

goen neurgailuak bestalde, Munduko Osasun Erakundeak ezarritako emisioak ezarritako mugaz gaindikoak izan direla gaineratu zuten.

Herriko hainbat lantegi, kutsadura iturri

Igepak

Aerosolak fabrikatu eta ontziratzen ditu. Seveso ziurtagiria du. Horren esanahia argitu zuten Anerrekaren hitzaldian. Araudi europar honek 1976an Italiako Milan iparraldeko Seveso udalerriko planta kimiko txiki batean izandako sute bati egiten dio erreferentzia eta horrek eragindako kalteari. Seveso izena jarri zioten europar araudi bat landu zuten, arriskutsutzat jo zitekeen elementuekin lan egiten zuten industriantzat. Igepakek egiaztagiri hau du. Horrez gain, “osagai organiko hegakorrak” erretzen dituztela azaldu zuten.

Luzuriaga

Donostialdetik N-634 errepi-dean Usurbila gatzela edota alderantzizko bidea egite-rakoan, ibilgailuko leihoa itxi beharrean aurkitu izan gara sarritan, Luzuriaga lantegiaren parean izaten den kiratsagatik. Kutsadura-fokuen artean kokatu zuen baita Anerrekak aipatu enpresa, airera isurtzen dituen kutsagaiengatik. Altzairuzko eta burdinezko piezak galdatzen dituzte. “Kutsatzen dutela badakigu, zenbat ez”.

Ucin

Urteotan hainbat herritarrek salatu dute lantegi honek isurtzen duen kea eta kiratsa. Zenbaitetan, ke zutabea herri osora hedatu izan da. “Teilatutik kon-



Gai toxikoak ez dira soilik arnastuz gorputzean barneratzen. “Lurrera, uretara erortzen diren partikulak lurrazalean “pilatzen doaz”, dio Felix Olaetxeak.

AIRE KALITATEAZ

“Haur batek jasan dezakeena astero” aise gainditzen du Ucinetik aireraturikoak, Anerrekaren hitzaldian aipatu zuten

trolik gabe ateratzen da kea”. Dioxina emisioari dagokionez, mugarik ez hizlariaren esanetan. Baimena ez du betetzen, “eta ez da ezer gertatzen”. Ucinetik ez du behar besteko kontrolik, hitzaldian azaldu dutenez, enpresari kontrola erakunde neutral batek egiten dio, bai-

na enpresak berak deitzen dio “noiz joan neurketak egitera”. Salatu zuten, “gaindiketak egon dira eta ez du eraginik izan. Inpunitatea handia da”.

Enpresak bere jarduera garatzeko behar duen baimena baldintza berrietara egokitzeko eskaerei kasurik egin ez eta iazko ekainean gogorarazi zuten, “prozedura guztiak gaindituz, alegazio epea oraindik zabalik zela, baimena eman zitzaion Ucini, baldintza berrietara moldatu gabe”.

Europako Batzordeko elikagaien agentziak zehazten du zenbateko emisioa jasan de-

zakeen haur batek. “Haur batek jaso dezakeena astero” aise gainditzen du Ucinetik aireraturikoak, Anerrekaren hitzaldian aipatu zuten. Lehendik ere adierazi izan duten moduan, arazoa airera isurtzen denetik haratago baitoa, gai toxikoak ez dira soilik arnastuz gorputzean barneratzen. Lurrera, uretara erortzen diren partikulak lurrazalean “pilatzen doaz”. Elikagaien bidez, “jaten dugunarekin sartzen dira” gure gorputzetan. Lantegi honekin jazotzen ari dena Usurbilgo Udalean eta Eusko Jaurlaritzan salatua duela berri eman zuen Anerrekak.

Erraustegiari buruzko lehen azterlana emaitzen zain

Udalerrri mailan egin den emisioei buruzko ikerlan bakarra, duela urtebete pasatxo, 2019ko irailean abiarazi zuen Zubieta Lantzenek. Holandako ToxicoWatch Fundazioko ikerlarien laguntzaz, erraustegiaren bueltan dauden herrietako

oilategiak, arrautzak, landaredian laginak hartzen aritu ziren, Zubieta gaineko azpiegitura ingurunean izaten ari den eragina behatzeko.

Dakizuen, lehen lagin bilketa hura erraustegia guztiz martxan jarri aurretik bide-

ratu nahi zuten, eta gero urtero errepikatu lagin bilketa, behin erraustegia martxan jarrita, zer nolako aldea dagoen ikusteko. Lehen azterlanaren emaitzak laster aurkezteko asmoa dutela berri eman zuten hitzaldian.

Kutsadura-foku anitzek beren eragina dutela, horren adibide argia da ikerlan hau. Aztertu zituzten oilategietako arrautzetako “analitikek balore altuak” erregistratu dituzte. “Kutsadura iturri ezberdinak izan ditzake”.

Lurgaia, biodibertsitatea zaintzen

Beren burua entitate sozial gisa aurkeztu eta 2002an sorturiko fundazioa aurkeztu zuten Anerrekak antolatutako hitzaldian. “Biodibertsitatearen kontserbazioa eta natura-ondarearen kudeaketa sustatzea du helburu: espezieak, habitata, lotutako prozesu ekologikoak eta paisaia”.

Babes soziala handitzen doaz, egun 500 bat bazkide ditu Lurgaiak eta urtero 2.000-3.000 bolondresen laguntza jasotzen dute antolatzen dituzten ekimenetan; zuhaitz landaketetan edota plastikoak kentzeko esaterako. “Guretzat boluntariotza oinarritzakoa da, jendea lehengoratzeko irizpideetan trebatzeko”, zioen Lurgaiaren lehendakari Jon Hidakok. Argi zioen, “guk ez dugu lan egiten guk basoaz gozatzeko, basoa lasai bizi dadin baizik”.



Lurgaiak 500 bazkide ditu gaur egun.

JON HIDALGO, LURGAIA

**Lurgaiaren babes
soziala handitzen doa.
500 bat bazkide ditu
eta urtero
2.000-3.000 bolondresen
laguntza jasotzen du**

Lurrak erosten dituzte

500 bat hektarea kudeatzen dituzte. Lurrak erosten dituzte jabeekin akordioak ez bada, bestela jabe pribatu nahiz publikoekin akordio bate-

ra heltzen dira. “Beren lurrak kudeatzea baimentzen digute, fundazioaren irizpideen arabera”.

Basoa, zaindu beharrekoa

Sortzen denetik basoa eremu dinamikoa dela gogorarazi zuen, heltze prozesu mantsoan zehar, “espezieak ugaritu eta adinean aurrera joan ahala aberatsagoa da biodibertsitatean”. Munduan biodibertsitate handiena dutenak dira. Zaindu beharrekoak.



Itoiz taldearen inguruko filmerako irudi eske

Doxa Producciones ekoiztetxetik Itoiz musika taldearen inguruko pelikula bat prestatzen ari dira eta artxiboko irudien bila dabil-tza, “1976an hasi zirenetik 1988an taldea desegin zen arte. Indar Trabes sasoiko materiala ere ongi etorria izango da”.

Harremanetarako

Bideo, argazki edo bestelako informaziorik “eskura baduzu, jarri gurekin harremanetan. Idatzi posta helbide honetara: archivo@doxaproducciones.com. Asko eskertuko genuke zure laguntza”.

Erraustegiaren kutsadurari buruzko informazioa eman gabe segitzen du Eusko Jaurlaritzak

Eskatu bai, baina eman ez. Usurbilgo Anerreka Ingurumen Elkartek Zubietako erraustegiak aireratzen dituen gai kutsakorren informazioa ematea eskatu zion irailean Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari eta urrian Jaurlaritzaren Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari. “2019an egunean batz bestea jasotako balioak eta 2020an irailaren 8ra arte ordu erdiko batz bestekoak”.

Informazioaren zain

Momentuz, aipatu Eusko Jaurlaritzaren batzordearen ebazpenaren berri baino ez du jaso. Argiak ezagutzera emandako



Anerrekak erraustegiari buruz eskatutako informazioa jasotzeko du.

ebazpenaren arabera, batzorde horrek Anerrekaren erreklamazioa aintzakotzat hartu eta

Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari eskatzen dio 10 eguneko epean erantzutea. Egun ordea,

Anerreka Ingurumen Elkartek erraustegiari buruz eskatutako informazioa jasotzeko du.

Monitorizazioaren garrantzia

2016ko apirilaren 11ko ebazpenaren bidez aldaketa batzuk egin zizkion Eusko Jaurlaritzak erraustegiaren Ingurumen Baimen Bateria-tuari. Horren arabera, baimen hau indarrean egon ahal izateko baldintza gisa finkatu zuten Zubietako erraustegia “etengabe monitorizatzea”, etengabe aireratzen zuena kontrolatzea.

Hain zuzen, datuok dira Anerrekak eskatu eta oraindik jaso ez dituenak.

Banda zabala landa eremu osora hedatzeko pauso berri bat eman du Udalak


Herrigunean jarria dago banda zabalaz hornitzeko azpiegitura, baina landa eremuko hainbat gunetan ez da zerbitzu hori eskaintzen oraindik. Udalak egoera honekin amaitzeko borondatea agertu du.

Oinarrizko azpiegitura dela uste du udalak eta banda zabala udalerriko baserri guztietara hedatzeko ahaleginean, Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi dio zeintzuk diren banda zabalik gabeko eremuak, hori konpontzeko prozedura abia dezan.

Azpiegitura honen falta duten 75 etxebizitza identifikatu ditu udalak. Mapa bat kale-ratu du udaletxeko ingurumen eta nekazaritza sailak, identifikatutako etxebizitzak erakusten dituen. "Landa eremuan bizi den herritarren batek ikusiko balu bere etxebizitza falta dela, jar dadila gurekin harremanetan", eskatu dute nekazaritza saileko ordezkariak.

Pandemia garaian konektatuta egotearen garrantzia

"Gaur egun, eta pandemia garaian are gehiago, sarean konektatuta egotea ezinbesteko bihurtu da eguneroko hainbat jarduerara normaltasunez egin ahal izateko", argudiatu du ingurumen eta nekazaritza sailak. Horregatik, are premiazkotzat jotzen dute zerbitzu honen zabalkundea.



Banda zabalaren falta duten 75 etxebizitza identifikatu ditu udalak. Ondoko mapan berdez agertzen diren zonaldeak banda zabalik gabeko eremuak dira.

BANDA ZABALA

Udalak oinarrizko azpiegitura dela uste du eta banda zabala udalerriko baserri guztietara iristeko ahaleginean, Foru Aldundiari jakinarazi dio zeintzuk diren banda zabalik gabeko eremuak, hori konpontzeko prozedura abiatu dezan

Udalak, eskumen mugatuak
Udalak eskumen mugatuak

ditu alor horretan. "Aldundiari egin dio eskaera, baina handik Madrilera bidaltzen dute, eta Madrilen onartutakoaren arabera esleipenak abiatu ahal izango ditu, gerora, aldundiak berak, eta ez udalak".

Zerbitzu gabeko 75 etxebizitza identifikatu ditu udalak

Baserriekin harremanetan jarrita, azpiegitura hori falta duten 75 etxebizitza identifikatu ditu udalak, baina ezin izan du guztiekin hitz egin: ingurumen eta nekazaritza sailarekin harremanetan jartzeko eskatu

diete irudiko mapan berdez ageri ez diren landa eremuko herritarrei.

Nekazaritza sailera jo behar da

Zerbitzuan interesa duten herritarrei otsailaren 26a baino lehen ingurumen eta nekazaritza sailarekin harremanetan jartzeko eskatu zaie. Bi modutara egin daiteke:

■ ingurumena@usurbil.eus e-posta helbidera email bat idatziz.

■ Udaletxera telefonoz deituz: 943 37 19 51.



“Eliza Zaharra Aginagako elkargune bat da eta elkarte ezberdinen beharretara egokitu behar da”

Auzolanean, halaxe ari dira Aginagako Eliza Zaharra eraberritzen. Pixkanaka, baina etenik gabe. “Estolderia lanak amaitu berri ditugu. Orain lurraren eta paretan arteko erremateak egiten gabilta, elektrizitatearen kutxak jartzen, eskenatokia handitzen...”. Ilusioz eta lanerako gogoz sumatu ditugu Aginagako Jai Batzordeko kideak.

NOAUA! Hau ez da orain hasi. Lehenagotik datorren lan baten segida da, ezta?

Aginagako Jai Batzordea: Eliza Zaharra konpontzen duela zortzi bat urte hasi ginen. Harria bistaratzen. Gerora, Aginagako gazteok hobekuntza txikiak egiten jarraitu genuen. Eskenatokia egin, barra handitu... Auzolanean. Baina konturatu ginen batzuetan indarrak alperrik ahitzen genituela. Antzerki talde bat ekarri eta eskenatokia handiagoa izan behar zuela esaten ziguten.

Bestetik, Eliza Zaharra Aginagako elkargune bat da eta elkarte ezberdinen beharretara egokitu beharra dago. Behin hori zehaztu ondoren, proiektu bat definitu beharra zegoela erabaki genuen. 2019an Ori-



“Gazteak bakarrik agertzen gara argazkitan, baina inguruko herritarren laguntza jasotzen ari gara uneoro”.

AGINAGAKO JAI BATZORDEA

**Estolderia lanak
amaitu berri ditugu.
Orain lurra eta
pareten arteko
erremateak
egiten gabilta”**

gami Arkitektura Taldea kontratatu genuen horretarako

propio. Epe ertainean egin zitekeen egitasmo bat definitu ziguten, fase ezberdinetan banatuta: lurra berritzea eta bi aretoen arteko irisgarritasuna hobetzea (iaz burutu zuten), elektrifikazioak egitea, komunak ipintzea, argiteria berritzea, korua berreskuratzea... Epe luzera ere gauza gehiago zerrendatu zizkiguten, baina lan horiek definitzeke daude oraindik.

Zertan aritu zarete azken asteotan?

Estolderia lanak amaitu berri ditugu: ur bero zein ur hotzaren hodian kanalizazioak egiten, eta baita ur zikinenak ere. Orain lurraren eta paretan arteko erremateak egiten gabilta, elektrizitatearen kutxak jartzen, eskenatokia handitzen... Komunak nola egingo ditugun planifikatzen ere hasiak gara.

“Korua berreskuratu nahi dugu”

NOAUA! Korua edo bigarren pisua zena berreskuratzeko asmoa zertan da?

Aginagako Jai Batzordea: Zutabe bat mantentzen da oraindik eta hortik abiatuta berreskuratzea nahi dugu korua. Egunen batean koruan zerbait egitearekin amesten genuen baina ez zen aukera erreal bat. Aginagako Bereziartua zerrategiko Joxe Antonio agertu zen arte. Gogotsu ikusi gintuen eta

laguntzeko prest azaldu zen. Makinaria bazuela, diseinua egingo genuela elkarrekin eta bere laguntzarekin muntatuko genuela dena.

Origami Arkitektura Taldea, bestetik, bigarren pisuaren kalkulu estrukturala egiten ari da. Guk egin egingo dugu, dakien baten zuzendaritzapean eta laguntzapean. Eta egindako lana legezatzeko arkitektoen laguntza izango

dugu.

Laguntza teknikoarekin bada ere, auzolanean segitzen duzuela esan daiteke.

Hala da. Gazteak bakarrik agertzen gara argazkitan, baina inguruko herritarren laguntza jasotzen ari gara uneoro. Iaztik hona hala izaten ari da. Garraioan, eraikuntza lanetan... Jende asko ari da partehartzen. Gu ez gara adituak

eta laguntza behar izan dugun bakoitzean herritarren laguntza jaso dugu.

Usurbilgo udal brigada ere bertaratu zaizue laguntzera.

Orain hasiko dira. Udal brigada komunekin sartuko da jokoan. Bien bitartean, guk auzolanean jarraituko dugu eta denon artean koordinatu beharko dugu lan denak aurrrera atera ahal izateko.

“Hemen gure borondatez ari gara lanean”

NOAUA! Lan denak amaitzeko epemuga jakin bat al duzue?

Aginagako Jai Batzordea: Aurtetik komunak eta korua (edo bigarren pisua) bukatu nahi ditugu. Baina data zehatz bat ezin dugu eman. Hemen gure borondatez ari gara lanean, eta jendea ez dago beti lanean aritzeko moduan. Ostiral arratsaldetan txanda bat egiten dugu eta larunbat goizean beste txanda bat. Batzuetan mantsoago gabiltza, besteetan azkarrago.

Dena den, emaitza berehalakoa izatea baino, garrantzitsuagoa da egiten dugun hori ondo egitea. Eta denek bere ekarpena egiten ari direla sentitzea.

Pandemia amaitzen denerako, zabalik egongo al da?

Bai, eta pandemia bukatu



“Emaitza berehalakoa izatea baino, garrantzitsuagoa da egiten dugun hori ondo egitea”, esan digute Aginagako Jai Batzordeko kideek.

**AGINAGAKO
JAI BATZORDEA**

**“Guretzat helburua
bidea bera da”**

aurretik ere bai. Dena den, guretzat helburua bidea bera

da. Guk gure kabuz komunitate bat eraikitzen joatea eta lan hauen bitartez elkargune bat osatzea. Orain egiten ari garena bada herria saretzeko modu bat. Eta hori gure helburuen artean dago. Eliza Zaharra itxita dago orain, baina aukera sortzen denean, ekital-

diren bat egin genezake.

Iazko udako Kultur Biran Oreaka Tx taldekoak bertan aritu ziren, ezta?

Eta Asier Kidam magoa ere hemen izan genuen. Aforo kontuengatik, kalean beste ekitaldi batzuk ere egin genituen.

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA

**Osasun neurri guztiekin
zuen zerbitzura**
-Astelehenetan itxita-

Larre-Gain Baserria, EREÑOTZU-HERNANI
Tel: 943 55 58 46 / 616 287 867

SAGARDOTEGIA
aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
TXOTXETIK!

ASTELEHENETAN ITXITA

osasun neurri guztiekin

943 36 67 10

info@aginagasagardotegia.com www.aginagasagardotegia.com

“Erradikalak ginen, gara eta izango gara”

‘Erradikalak gara’ emanaldia-rekin 100 saio eskaini eta gero, Ane Labaka bertsolaria eta Bea Egizabal antzezlea ‘Erradikalak ginen’ izenekoarekin itzuli dira oholtza gainera. Pasa den larunbatean Sutegin izan ziren, NOAUAk antolatutako saioan. Sarrera guztiak agortu ziren.



NOAUAk antolatzen du Usurbilgo Inauteri Jaia. Covid-19aren erruz, aurtengo festa bertan behera utzi behar izan dugu. Horren ordez, ‘Erradikalak ginen’ ikuskizuna ekarri genuen Sutegira. Umorea hausnartzeko tresna eragingarria dela erakutsi ziguten Ane Labakak eta Bea Egizabalek.

Ikasleen aurtengo dantzaldiak, ikastetxetik atera gabe



“Aurtengo Inauteriak ikastola barruan ospatu behar izan baditugu ere, ez da ilusio eta umorerik falta izan. Gora inauteriak!”. Hitzak eta argazkiak Udarregi Ikastolaren sare sozialetatik hartu ditugu. Pandemiak ez zien moztarrotzeko ilusioa zapuztu.

“Eskerrik asko herriko ttuntturro taldeari”

Aurten ez da Inauteri Jairik antolatu. Ohiko ospakizunen ordez, NOAUA! Kultur Elkartek *Erradikalak ginen* ikuskizuna antolatu zuen. Hala ere, jende asko moztarrotu egin zen eta herriak beste kolore bat hartu zuen. Inauterietan ohikoak diren doinuak ere entzun ahal ziren, ttuntturroen zintzarri hotsak adibidez. “Eskerrik asko herriko ttuntturro taldeari (babes neurri guztiekin) kaleak alaitzeagatik... Aupa zuek!!”, zioen Xingolak bere sare sozialetan. Argazkia ere berea da.



Ttuntturroak ezarritako babes neurriak errespetatuz atera ziren kalera pasa den larunbatean. Argazkia: Xingola.

Tren geltokia berritzeko proiektua, berridazketa prozesu betean

Tren geltokia berritzeko proiektua urte amaierarako prest egon liteke, Usurbilgo Udalak berri eman duenez.

2010. urtean egin zen proiektua idazteko lehen saiakera baztertua geratu ondoren, Usurbilgo tren geltokia berritzeko prozesua aurrerantz doala dirudi oraingoan, Usurbilgo Udalak berri eman duenez. Iaz hasi zuen prozedura Euskal Trenbide Sareak, Tysa izeneko enpresari esleitu zitzaion proiektua berridazteko ardura. Proiektu hau urte amaiera honetarako prest izango dela aurreikusten dute. Euskal Trenbide Sareak (ETS) gauzatu beharko du. “ETSk zor historikoa du Usurbilekin: lehen ere egin zuten proiektua, eta tiraderan gordeta gelditu zen. Proiektu berridatzia gauzatu dadin lanean ari gara: espero dezagun ETSk emandako hitza betetzea”, nabarmendu du Agurtzane Solaberrieta Mesa alkateak.

Bi proposamen proiektuari

Bi ekarpen nagusi egin dizkio Udalak berridazketa prozesu betean den proiektuari, “geltoki berria egitea merkeago izateaz gain, funtzionalagoa eta ingurunearekiko inpaktu gutxiagokoa izan dadin”, eta 2010ean gertatu ez zen moduan, oraingoan egitasmoa gauzatu dadin.

“Udala haiekin harremanetan dago, geltoki berria herria-



Bi ekarpen nagusi egin dizkio Udalak proiektuari, “geltoki berria egitea merkeago izateaz gain, funtzionalagoa eta ingurunearekiko inpaktu gutxiagokoa izan dadin”. Argazkia: Udala.

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Proiektu berridatzia gauzatu dadin lanean ari gara: espero dezagun ETSk emandako hitza betetzea”

rentzako ahalik eta egokiena izan dadin”. Batetik, Etxealdia eta geltokia lotuko lukeen zubia, 2010eko proiektuan aurreikusitakoa baino motzagoa izatea proposatu du. 2010ekoak Etxealdiatik hasita, N-634 errepidearen, trenbidearen eta Atalluko industriagunera arte luzatzen zen. Udalak ordea Ingemar lantegi pareko sarbidera laburtzea proposatu du. “Modu horretara, Santuenearen eta Kaxkoaren arteko lotura zuzene-

nagoa litzateke oinezkoentzat, inpaktu txikiagoa eragingo luke, eta merkeagoa litzateke. Batera zein bestera, oinezkoen segurtasuna erabat bermatuko da, trenbide-pasagunea ezabatuko baita, herriko puntu arriskutsu bat desagerraraziz”, Udalaren esanetan.

Bigarren ekarpen bat ere egin dio Udalak aipatu proiektuari, “zubia eta geltokia bereizita egiteko aukera jasotzea”. Hartara, geltokia berritzeko lanak atzeratuko balira, “zubi berria egiteko oztopo izan ez dadin”. Zubia geltokira iristeko bidea izango da, eskailera nahiz igogailu bidez jaitsi ahaliko da bertatik geltokiko bi aldeetara, hau da Donostia aldera doan trenera sartzeko nasara nahiz Orio aldekoa jaistea ahalbidetuko du.

Maskarak eta plastikozko poltsak nonahi

Otsailaren 14an ateratako argazkia da, herritar batek posta elektronikoki bidez helarazia. “Txokoalde ingurukoa da, poltsak, maskarak eta abar”. Gure inguruko bazterrak ez ditugula zaintzen aditzera ematen zuen bere mezuan. “Baina hori edukazioagatik da”, zioen, “hasi gaitzen gure etxetik. Eskerririk asko”. Arrazoirik ez zaio falta irakurle honi.



Maskarak eta plastikozko poltsak ageri dira Txokoalden ateratako argazki honetan.

Energiaren udal-bulegoa Artzabalen dago

“Udalaren energia kontsumoaz arduratzeaz gain, herritarrentzako aholkularitza ere emango du: fakturazioari buruzko informazioa, batik bat, herritarrek euren fakturretan aurreztu

ahal izan dezaten. Horrez gain, zer nolako kontratua duten ulertzen lagunduko die, aurrera begira autonomoak izan daitezen”, Udaletik berri eman dutenez.

Energia bulegoa

■ Ordutegia: 9:00-13:00 (astelehenetik ostiralera).

■ Bertaratzeko aurrez hitzordua eskatu: 943579417 energia@usurbil.eus

Eskola Kirola eta Zirimara martxan dira berriro

Intzidentzia tasa 475'59ra jaitsi zen asteburuan eta datu honi esker, Usurbil eremu gorritik atera da. Eskola Kirola eta Zirimara martxan jarriko dira berriro, astebetez etenda egon eta gero.

Gorabeheratsua izaten ari da ikasturtea. Ikastetxe barruan zein ikastetxe kanpoan. Eskola Kirola eta Zirimara zerbitzua dira honen adierazgarri. Otsailaren 8an euren jarduerak eten egin behar izan zuten. Ohar bidez jakinarazi zuten. "Gaur argitaratu dituzten datuak direla eta, Usurbil eremu gorrian sartu da. Egoera hau dela eta, Eusko Jaurlaritzak ebazpena atera du eta murrizketak sartuko dira indarrean Usurbilen, bihartik aurrera (otsailaren 9an). Bertan behera gelditzen dira Eskola Kiroleko jarduerak eta Zirimara; egoera aldatu arte edo araudi berriak baimendu



Astebeteko epean eremu laranja itzuli da Usurbil eta gaztetxoak Eskola Kirolan eta Zirimaran jarduteko aukera berreskuratu dute.

500DIK BEHERAKO TASAREKIN

"Mugakideak ez diren herrietara joan gaitezke programatutako ikastaroetan parte hartzera"

arte. Etenaldi laburra izango dela espero dezagun. Animo eta zaindu". Zuzen zebiltzan. Astebeteko epean eremu laranja itzuli baita Usurbil. Gaztetxoak Eskola Kirolan jarduteko

aukera berreskuratu dute, Zirimarako eskaintzaz gozatzeko aukera berreskuratzearekin batera.

Federatuak

Aldi berean, intzidentzia tasa 500etik beherakoa bada, mugakideak ez diren herrietara ere mugi daiteke kirola egitera federatu eta profesionalen entrenamenduetarako zein programatutako ikastaroetara joateko.

Mugakide diren udalerrietara joateko aukera dago orain

Iñigo Urkullu lehendakariak otsailaren 12ko agerraldian jakinarazi zuenez, indarrean dagoen dekretua beste 20 egunez luzatu da. Eta horrekin batera, otsailaren 15etik aurrera bi salbuespen hauek onartuko zirela aurreratu zuen:

■ Mugakide diren ohiko udalerrien arteko mugikortasuna baimenduko da, aire zabaleko gizarte-, ekonomia- eta kirol-jarduerak egiteko.

■ Zehaztasun handiagoz definitzen dira udalerrien arteko mugikortasuna baimentzeko kasuak: lehiaketa profesionalen edo erdi-profesionalean dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak; eta



Otsailaren 12an bi neurri berri iragarri zituen Urkullu lehendakariak.

500 baino intzidentzia-tasa txikiagoa duten udalerrien arteko mugikortasuna kirol federatuko lehiaketa eta entrenamenduetarako, Eskola Kirola-ko entrenamendueta-

rako eta gimnasio, klub edo kiroldegietan programatutako ikastaro edo jardueretarako. Aste honetan, hain juxtu, eremu laranja itzuli da Usurbilgo herria.

Etenaldi ugari eman dira

urtebeko epean

Iazko udaberriko konfinamendua 2019-2020 ikasturte amaierara arte luzatu zen. Hura izan zen Zirimarak eta Eskola Kirolak ezagutu zuten lehen etenaldia.

Prebentzio neurri zorrotzak hartzeko lanketa egin eta gero, Udako Txokoak antolatu ahal izan ziren uztailean, baina bi aste epean bertan behera uztea agindu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Irailean, ikasleak ikastetxeetara itzuli zirenean, Eskola Kirola nahiz Zirimara berreskuratze lanketari ekin zioten herriko kirol esparruko eragileek. Urrian lortu zen baimena. Baina astebetera eremu gorrian sartu eta berriz ere etenda geratu zen eskaintza hau guztia.

Gabonetako salbuespena

Etenaldi hura leuntze aldera, Neguko Txokoak antolatu ahal izan zituzten gabonetan. Bi astez, primeran pasa eta izugarri eskertu zuten urteroko egun horietako ohiko kultur eskaintza (gabonetako parkeak...) etenda izan zuten gaztetxoek. Usurbilen talde bat osatu zen, Aginagan bestea.

Gabonetako oporren bueltan, Eusko Jaurlaritzak dekretu berria onartu eta 500etik beherako intzidentzia zuten udalerrietan Eskola Kirola antolatzea baimendu zuen. Usurbilek premisa hori betetzen zuen. Otsailaren 8an Usurbil eremu gorri-igaro zen arte. Enegarren etenaldia ezagutu zuten Zirimarak eta Eskolak Kirolak. Astelehen honetatik eremu laranja itzuli denez, Eskola Kirola eta Zirimara berriro martxan dira Usurbilen. Noiz arte? Intzidentzia-tasaren baitan dago erantzuna.

Giro ederra Ameba taldearen zuzenekoan

Ameba taldeak “Elikatuz” izeneko lehen diskoa aurkeztu zuen igandean Sutegin. Albumari buruzko hainbat azalpen eman zituzten lehenbizi, bideoklip berria ezagutarazi zuten ondoren eta, segidan, kontzertua eskaini zuten. Lehen emanaldiko sarrerak berehala agortu zirenez, bigarren saio bat eskaini behar izan zuten.

Enara Eizagirre, Aritz Zabaleta, Malen Azpiazu eta Jon Mikel Azpiazuk osatzen dute Ameba taldea. “Elikatuz” izeneko diskoa grabatu dute Andoaingo Garate estudioan, Martxel Arkarazoren zuzendaritzapean. Ameba taldearen lehen lana da honakoa eta herrian abiatu dute aurkezpen bira.



Enara Eizagirre, Aritz Zabaleta, Malen Azpiazu eta Jon Mikel Azpiazuk osatzen dute Ameba taldea. “Elikatuz” izeneko diskoa plazaratu berri dute eta zuzeneko aurkezpen bira pasa den igandean abiatu zuten Sutegin. Diskoa eskuratu nahi duenak Aitzagan, Lizardin edota Kaffan aurkituko du salgai.

“Aitortza, erreparazioa eta egia eskatzen dugu”

Joxe Arregi 1981eko otsailaren 13an hil zen, 9 egunez torturatua izan ondoren. Urteurrenean, ekitaldi ugari egin ziren Euskal Herrian. Usurbilen, Ernai gazte taldeak panel batzuk ipini zituen Mikel Laboa plazan.

1960tik hona, Euskal Herrian 5.657 torturatu kasu egon direla zioen kartel horietako batek, eta horietatik 30 Usurbilen. Gertatutakoa salatzeaz gain, aitortza, erreparazioa eta egia eskatzen du Ernaik.



Aurreko larunbatean, Torturaren Aurkako Egunean, Ernaiko gazteek panel hauek ipini zituzten Mikel Laboa plazan.

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
628 45 78 39
reformasmonroy@hotmail.es
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

Zuen publizitatea hemen
 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Udaleku ibiltarirako sukaldari eta begirale bila dabil UEMA

Pauso eta Salto! izeneko udaleku ibiltaria ekainaren 28tik uztailaren 4ra egingo da. Zumaian abiatu eta Lekeitio amaituko da aurtengo martxa. Begiraleak eta sukaldariak behar direnez, UEMAk lan deialdi bat luzatu du. Martxoaren 31 baino lehen bidali behar dira begirale edo sukaldari aritzeko curriculumak hezkuntza@uema.eus helbidera.

Curriculum guztiak jaso eta gero, eskaeren artean hautaketa bat egingo da eta apirilaren 15erako jakinaraziko zaie erantzuna interesatuei.

Honako ezaugarriak baloratuko dira:

- Begirale titulua izatea.
- EGA edo bere baliokidea izatea.
- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea edo burutzen egotea.
- Lan eskarmentua antzeko lanetan.
- Euskararekiko sentsibilizazioa.
- Taldean lan egiteko erraztasuna.



14 eta 18 urte arteko gazteentzako udalekua da, eta bertan parte hartu nahi dutenek ere martxoaren 31ra arteko epea dute izena emateko.

UEMAREN UDALEKUA

“Curriculumak martxoaren 31 baino lehen bidali behar dira”

Gazteentzako udalekua

14 eta 18 urte arteko gazteen-
tzako udalekua da Pauso eta Salto!, eta bertan parte hartu nahi dutenek ere martxoaren 31ra arteko epea dute izena

emateko.

Zumaian hasi eta Lekeitio amaituko da

1. etapa: Zumaia-Itziar (ekainak 28).
2. etapa: Itziar-Ondarroa (ekainak 28-uztailak 1).
3. etapa: Ondarroa-Lekeitio (uztailak 1-uztailak 4).

Informazio gehiago:

<https://www.uema.eus>

Teknologia berriei buruzko ikastaroa, helduei zuzendua

Adinekoek bideokonferentziak eta whatsapp aplikazioa erabiltzen jakiteko ikastaroa antolatu du Usurbilgo Udalak herritar helduenentzat. 4 ordukoa, bi aste ezberdinetan bideratuko dena.

Egunak eta tokia, interesatuen arabera

Presentzialak izango dira saioak, eta horretarako beharrezko prebentzio neurriak hartuko dira. Baina nahita ez dituzte ez ikastaro egunak ezta tokia ere zehaztu nahi izan. Xehetasunok lotu aurretik izen ematea bideratu nahi dute eta “interesen eta jendearen bizilekuaren arabera ikastaroak leku ezberdinetan kokatuko ditugu”, gizarte zerbitzuetako udal teknikari Maria Salsamendik ekimen honen aurkezpen aipatu zuenez.

Izen-ematea, Gizarte Zerbitzuetan

Izena emateko Gizarte Zerbitzuetara deitu besterik ez dute, 943 377 110 telefono zenbakira. Informazio gehiago jaso daiteke bertan.

Izena ematen dutenei, telefono mugikorra ikastarora eramatea eskatzen diete.



Izena emateko Gizarte Zerbitzuetara deitu, 943 377 110.

Solasaldi literarioa liburutegian

Katixa Agirreren *Amek ez dute* (Elkar) eleberria hizpide izango dute martxoaren 17an udal liburutegian.

Usurbilgo berdintasun sailak eta Sutegi udal liburutegiak

elkarlanean prestaturiko saioa izango da martxoaren 17koa, arratsaldeko 18:00etan. Kattalin Miner idazleak gidatuko du solasaldia. Oraindik badituzte hainbat ale eskuragarri.



Katixa Agirreren *Amek ez dute* (Elkar) eleberria izango dute hizpide.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramun- to kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

Nissan Note 1600 gasolina koxea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dabilen pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila nabil. Orduka egingo nuke lan. 632557858

Karrozero ofiziala. Txapa eta pintura lanak egiten ditut lan bila nabil. 610346085

Erizaina, pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo externa moduan. 610827729 / 610346085

Emakume euskalduna eta arduratsua garbiketa lanak egiteko, edo umeak zaintzeko. 699 72 53 34

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Profesionalitate ziurtagarria daukat. Interna moduan edo esterna moduan. 609647728

Familia kargarik ez duen mutil arduratsua, helduen zaintza lanetan aritzeko. Egun osoz edo orduka. Berehalako disponibilitatea. 697820143

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko

ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egina dut. Lan baimena dut: 602531759.

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

Emakume bat eskaintzen da umeak, adineko pertsonak eta etxeko lanak egiteko. Informekin 658706345 / 602568090.

24 urteko neska gaztea. Arratsaldean umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduena. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuok deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko

emakume bat eskaintzen da. 631157290.

BESTELAKOAK

Laboraleko kartila bat galdu dut Antxetatik Atxegaldarako bidean. Topatzen baduzu asko eskertuko nizuke Udaltzaingorara eramatea edo ondorengo telefonora deitzea: 629475343

Usurbil inguruan baratza lantzeko lur sail baten bila nabil. 606601235

Egur eta ikatz sukalde ekonomika saltzen dut. Deville marka frantsesa. Barruan labe handi bat, labearren azpiko tiradera eta errautsak biltzeko gaitasun handiko bandeja bat ditu. 696763868/699723314

Mendiko bizikleta bat salgai 450 euro, negoziagarriak. 646715903 (Maiden)

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.



Zorionak Arai!! Gure etxeko sorginak 4 urte bete ditu. Zorionak txapelduna!!!

Heriotzak

Antonio Garcia Perez

Otsailaren 10ean hil zen, 61 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 18 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 19 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 22 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 23 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 24 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 25 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 26 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 27 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 28 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda otsaila

19 ostirala

■ **Ez dago ekitaldirik iragarrita.** Emanaldiak edo bestelakoak iragartzeko, idatzi hona: erredakzioa@noaia.eus

20 larunbata

■ **Ez dago ekitaldirik iragarrita.** Emanaldiak edo bestelakoak iragartzeko, idatzi hona: erredakzioa@noaia.eus

21 igandea

■ **Ez dago ekitaldirik iragarrita.** Emanaldiak edo bestelakoak iragartzeko, idatzi hona: erredakzioa@noaia.eus

Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketari buruzko saioa

Usurbil sagardoaren bihotza, sagardoaren kultura zikloaren baitan, Alkartasuna Usurbilgo Base-rritarren Kooperatibak “sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa” saioa antolatu du.

Aurrez eman behar da izena

Otsailaren 26an ostirala, 15:30ean Potxoenean. Aitor Etxeandiak bideratuko duen hitzordurako izena aurrez eman beharko da usurbilkultura.eus atarian, alkartasuna@usurbil.com helbidean edo 943 361 114 telefono zenbakian.

Inausketa praktikak egingo dira

“Neguko inausketa mota desberdinak eta bere helburuak azalduko dira: ekoizpenaren hobekuntza, arbolaren erregulazioa



Aitor Etxeandiak eskainiko du Potxoenean. Otsailaren 26an ostirala, 15:30ean hasita.

fruta adarrak sortuz, airea eta argitasuna bilatu, adarrak berritu...”, Alkartasunatik aditzera eman dutenez. “Ongarriketaren helburuak eta bere aplikazioak ere aztertuko dira. Inausketa praktikak Usurbilgo sagastietan egingo dira”.

KZguneak telefono bidezko argazkigintzari buruzko ikastaro bat antolatu du

KZgunean zuzeneko hitzaldiekin jarraitzen dute, Youtubeko KZguneaTIC kanalaren bidez. “Gure zuzeneko hitzaldietan parte hartzeko, interesa duten pertsonen Internetarako konexioa baino ez dute behar. Youtubeko ekitaldirako sarrera librea

izango baita (ez da beharrezkoa aldeaz aurretik izena ematea)”.

“Argazkigintza-aholkuek”

Otsailak 23, 19:00 - 19:30 / Euskaraz.

Otsailak 25, 19:00 - 19:30 / Gaztelaniaz.

Datozenak

Martxoaren 8ari lotutako deialdiak

Martxoak 6, larunbata

■ Emakumeen Etxearen parte-hartze prozesuko emaitzen aurkezpen ekitaldia eta eskertza parte hartzaileei.

Martxoaren 8ko astean

■ Simone de Beauvoirren “Bigarren sexua” sortze lana euskaratu duen Irene Arraratsen hitzaldia.

Martxoko azken asteburua

■ Mundualdiaren edizio berezia: aitorza ekitaldi berezia. Aztikerren ikerketaren emaitzen eta Maialen Unanue eta Ibai Arrieta herritarrek Usurbila etorritako migranteen lekukotzekin sortutako dokumentalaren aurkezpena.

Apiriletik aurrera

■ “Nola zaindu”, zaintza eredua beregiritatzeko parte-hartze prozesua. Antolatzailea: Udala.



Emakumeen Etxearen inguruko parte-hartze prozesuko emaitzak martxoaren 6an ezagutaraziko dira.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ETXETRESNEN KONPONKETA-SALMENTA
MARKA GUZTIAK
DESHUMIDIFIKADOREAK ERE BAI!
645417665
xabier

Iturkintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA • ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Info@iturkintza.com - www.iturkintza.com
600 024 825

www.noaia.eus
USURBILGO ATARIA



Bideo konferentziak



Whatsapp

Adinekoentzako ikastaroak:

Lau ordukoa

Talde txikietan, pertsonalizatua eta presentziala
Nork bere telefonoa ekarri behar du

Ordutegia: parte hartzaileei komeni zaienean

Non: kaxkoan eta auzoetan, eskaera nahikoa izanez gero

Izena emateko

943 37 71 10



BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



saski hau zozketatuko
otsailaren 26an



OSASUN GIDA 2021



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente pareia doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente pareia doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikoa
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS 28/17

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Osakidetzarekin
hitzarmena

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen
salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu
tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205



Kima

MASAJE LEKUA

• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik